

# AIARALDEA *hemen*

ALFREDO REMIREZ:  
**Txiolari amurriarra**  
**urtebete espetxeratzeko**  
**agindua eman du**  
**Entzutegi Nazionalak** 2 or.



EMAKUMEEN GELA:  
**Aiaran ireki dute Arabako**  
**lehen emakumeen gela,**  
**Arespalditzan** 6 or.



## Aceros de Llodioaren itxierak 25 urte



### ERREPORTAJEA

1992KO UDAZKENEAN ITXI ZUTEN ACEROS DE LLODIO LANTEGIA. ITXIERAREN AURKA EMAN ZEN BORROKAREN HAINBAT LEKUKOTZA BILDU DITUGU 8-11 or.

HERRIZ HERRI 2  
**Tubos Reunidosen**  
**"lanpostuak suntsitu"**  
**nahi dituztela salatu dute**  
Enpresa batzordearen ustez,  
lan baldintzak okertuaz kendu  
nahi du zuzendaritzak zorra. 2

**Trenbideko pasabideak**  
**ikertuko ditu ministerioak**  
Espainiako Sustapen  
Ministroak hartu du  
konpromisoa, Aretan hildako  
gaztearen gurasoeekin bildu  
ostean. 6

KULTURA 14  
**Josean Bengoetxeak**  
**jasoko du Begibistaneko**  
**Ohorezko Txapela**  
Larunbatean Amurrio  
Antzokian egingo den galan  
jasoko du aktoreak saria. Gaur  
-urriak 4- hasiko da Begibistan  
Zinema Astea. 27 film labur  
proiektatuko dira guztira.

**Dokumentala grabatuko**  
**du Yogurinha Borovak**  
Sexu aniztasunari buruzko  
filma grabatu nahi du artista  
audioarrak eta diru bilketari  
ekin dio horretarako. 14

KIROLA 18  
**Ikasturte berriari heldu**  
**dio Laudio Eskubalo**  
**Taldeak**  
Kirol hori praktikatzen duen  
talde bakarra da Aiaraldean.  
Hori dela eta, eskualdeko  
hainbat txokotako jokalariek  
ditu. 18

# Gobe

- Estilo propioa.
- Gizon zein emakumezkoentzako modelo eta neurri aukera zabala.
- Moda bilduma berriak, hamabostero.
- Merkatuko marka liderrak.



KALITATE  
ETA  
PREZIORIK  
ONENA

Zumalakarregi etorbidea, 38  
94 467 78 67

# herriz herri

## Amurrio

### Dispertsioaren aurkako panpina bategatik espetxeratuko dute Alfredo Ramirez



Jende ugari gerturatu zen Ramirez agurtzera espetxeratze-agindua salatzeke eginiko mobilizazioan. Gontzal Garate

Testua  
**Izar Mendiguren Cosgaya**

Alfredo Ramirez amurriarra Entzute Nazionean aurkeztutako errekurtoa atzera bota du epaitegiak. Gauzak hala, edozein unetan espetxeratu dezakete, urtebeteko kartzela zigorra betearazteko.

2017ko otsailean epaitu zuten Ramirez, sare sozialetan terrorismoa goratzea egotzita. Akor-

dioa lortu zuen defentsak fiskalarekin, eta ondorioz amurriarra ez zen kartzelan sartu.

Baina epaiketa horrek atzera bota du Ramirezen aurkako 2009ko epaiaren suspentsioa. Horregatik, urtebeteko kartzela zigorra bete beharko du 2009an egotzi zioten delituagatik: 2005eko Amurrioko Jailetako txupinazoan dipertsioa salatzeke panpina bat ateratzea.

Ekimen ugari egin ziren ira-

gan astean Ramirez elkartasuna adierazteko. 500 pertsona baino gehiago batu zituen ostiralean eginiko mobilizazioak.

Txiolari amurriarrak eskerak eman nahi izan dizkie elkartasuna adierazi dioten guztiei: “nabaritzen da sostengua dudala”. Ramirezek azpimarratu zuen ez dela ezertaz damutzen, eta “presoen aldeko borrorak” aurrera jarraitu behar dela aldarrikatu zuen.

### “Lanpostuak suntsitzeko neurriak” salatu dituzte Tubos Reunidosen

Testua **Txabi Alvarado Bañares**

Oharra plazaratu du Tubos Reunidosen enpresa batzordeak, zuzendaritzak abiatutako “zorraz murrizteko neurriak” salatzeke. *Plan Creación de Valor-Transforma 360º* dokumentuak barnebiltzen ditu neurri horiek. McKinsey aholkularitza enpresarekin elkarlanean egin dute plana.

Enpresa komitearen ustez, “akatsa” da zuzendaritzak 300 milioi euro baino gehiagoko zorra murriztu nahi izatea, horre-

tarako lanpostuak suntsitu eta lan-baldintzak okertuko dituzte eta. Langileen ordezkarien arabera, azken urteetan eginiko “kudeaketa txarra” izan da Tubos Reunidosen gaur egun bizi duen egoeraren eragile nagusia, eta nabarmendu dute enpresak 214 milioi euro irabazi zituela 2007 eta 2014. urteen artean, “akziodunen artean 244 milioi euro banatuz”.

Horregatik eskatu diete Eusko Jaurlaritzari eta instituzioei lanpostuen mantentze eta kalitatea zaintzeko, “krisi honen kudeaketa txarra” ekiditeari begira.

### “Train and Visit” ekimena abiatu dute turismoa sustatzeko

Herrira turistak ekartzeko ekimen berria plazaratu du Amurrioko Udalak Amurrio Bidean sozietate publikoaren bidez, eta Arabako Foru Aldundiak emandako diru-laguntza baliatuta. “Train and visit” da egitasmoaren izena eta trenetaz datozen turistek bideratua dago. Finean, paseo turistikoak egingo dira eurentzako, herriko “toki interesgarriak” bisita ditzaten.

“Online marketinga turismo-sektorerako” izeneko tailerra eskainiko du baita Amurrio Bidean. Irekita dago jada izena emateko epea.

## Okondo

### Eskolako jolastokia konpondu du udalak

Testua  
**Txabi Alvarado Bañares**

Herriko eskolako jolastokia konpondu du Okondoko Udalak. “Kulunka berriak eta segurtasunezko zorua jarri dira”, azaldu du Itziar Kastrexanak. Zinegotziaren hitzetan 27.279,45

eurokoa izan da eginiko obraren aurrekontua, “baina Eusko Jaurlaritzatik 16.367,67 euro jaso dira”.

Kastrexanak jakinarazi du bileraren parte hartzaileak egin direla ikastetxeko umeen gurasoeekin: “eurek eta irakasleek hartu dute parte erabakietan”.

## Artziniega

### Boluntarioen lana izan du ardatz Euskadiko Museoetako Hezkuntza Sailen topaketak



30 lagun inguru bildu ziren topaketan. Artziniega Museoa

Testua  
**Izar Mendiguren Cosgaya**

Artziniegako Museoan elkartu ziren Euskal Herriko hainbat txokotako lagunak astelehenean. Urtero antolatzen dute hitzordua, baina lehendabizikoz jaso du Aiaraldeak. “Seigarren topaketa izan da”, aipatu du Paki Ofizialdegi Artziniegako Museoko arduradunak.

Iazko topaketan aplikazio digitalak museoetan nola erabili landu zuten: “Gure indargunea boluntarioen lana denez, aurreko jartzea erdigunean erabaki genuen”.

#### Boluntarioen eredua

“Borondatezko lana izan da topaketaren oinarria. Gure museoak ez zen bestela sortuko”, aitortu du. Hala, inguruko esperientziak izan zituzten

hizpide: Artziniegako eliz museoarena eta Amurrioko Felix Murga museo etnografikoarena kasu. Parte hartzeari dago-kionez, 30-35 lagun bertaratu ziren, 20 museoetako ordezkariak.

“Artziniegako museoak ikusita harrituta geratu dira, askok ez zuten ezagutzen eta ez zuten espero”, dio eraikinaren arduradunak. Eztabaida “mamitsu” bati heldu zioten: “Boluntarioen lanaren alde onak eta txarrak aztertu ditugu. Dokumentu batean idatziko ditugu ondorioak”.

Paki Ofizialdegik nabarmendu duenez, elkarrengandik gauza asko ikasi dituzte. Zentzu horretan, lan boluntarioaren beharra azpimarratu du: “Gure kasuan, behintzat, boluntarioen ekarpenik gabe ez legoke museoak”.

## Aiaraldea

# Maider Basterra izango da Aiarako Kuadrillako emakumezko lehen lehendakaria

Laudioko Udaleko zinegotzia da baita Maider Basterra Ibarretxe. [aiaraldea.eus](http://aiaraldea.eus)

Testua

**Txabi Alvarado Bañares**

Maider Basterra Ibarretxe izango da Aiarako Kuadrillako emakumezko lehen presidentea, orain arte gizonetakoak izan baitira kargudunak. Ez-ohiko bilkura batean hautatu zuten politikari jeltzalea, Ander Añibarrok bere dimisioa aurkeztu ostean.

Izan ere, bi urtez izan da Añibarro Kuadrillako lehendakaria. Alabaina, Eusko Jaurlaritzako gobernuan hasi zen lanean urte hasieran.

Horregatik utzi dio Kuadrillako burua izateari: "Denbora faltagatik sumatzen dut aurretik ezingo dudala % 100 eman".

EAJko kideak azaldu duenez, "ohorea" izan da berarentzat kargua betetzea, "erronka pertsonala izan da niretzat, eta gaztea izateak sortzen duen mesfidantzari egin behar izan diot aurre". Hala ere, Añibarrok azpimarratu du "lan-giro ona" izatea lortu dutela, eta eskerrak eman dizkie bi urte hauetan berarekin egon diren kide guztiei.

Dimisioaren ondoren ekin zi-

tzaion presidente berriaren hautaketari. Maider Basterra Ibarretxe gailendu zen, 13 botorekin. Bigarren geratu zen EH Bilduko Mariano Alava, 10 botorekin. OMNIA alderdiko Nerea Gonzalezek 4 jaso zituen; eta bakarra, aldiz, Orain Amurrioko Angel Jimenezek.

## Lehen emakumea

"Bazen garaia emakumezko lehendakari bat egoteko", adierazi du Maider Basterrak lehen hitzartzean; eta gaineratu du Añibarrok utzitako bidea jarraituko duela.

## Mozioak aurkeztu ditu ASASAMek eskualdeko udaletan

Mozioa bat aurkeztu du ASASAM elkarteak Audio eta Amurrioko Udaletan, eskualdean buru gaixotasuna duten pertsonentzako azpiegitura egokien beharra aldarrikatzeko. Bi udaletan onartu egin da mozioa, ia talde politiko guztiek aldeko botoa eman baitute -PSE abstenitu egin da-.

Dionisio Aldama, 20  
(Geltokiaren aurrean) AMURRIO  
Tel. 945 89 08 41

Asteartetik ostiralera: 9:30-19:00 (ez dugu eguerdian iten) Larunbatak: 9:00-14:00etara

ILEAPAINDEGI MISTOA · EDERTASUNA · LURRINDEGIA · OSAGARRIAK

**FOTODEPILAZIOA**

Ez itxaron uda arte  
ekin fotodepilazioari orain

Aurrekontua konpromisorik gabe

edertasuna - sauna - solariuma

Instagram Facebook Ushuaia Peluqueria & Estética/Perfumera

## Arrankudiaga-Zollo

## Ugaoko institutua erabiltzeko aukera izango dute Arrankudiaga-Zolloko gazteek

4.451.175 euro baliatu dituzte eraikina egiteko. [Geuria.eus](http://Geuria.eus)

Testua

**Txabi Alvarado Bañares**

Arrigorriagara edo Laudiora mugitu behar izan dira.

Bigarren Hezkuntza ikastetxea inauguratu dute Ugaon, ikasturte berriarekin batera. Arrankudiaga-Zolloko ikasleek aukera izango dute bertan ikasteko. Orain arte

4.457 metro karratuko azalera du eraikin berriak, eta hiru solairu ditu. Gimnasio estalia, patioa, jangela, liburutegia eta erabilera anitzeko aretoa ditu, besteak beste.

## ASTEAZKENA 4

20:00

Inaugurazioa  
OFIBISTAN 1 (80 min)

## OSTEGUNA 5

20:00

OFIBISTAN 2 (100 min)

## OSTIRALA 6

19:00

OFIBISTAN 3 (90 min)

21:00

OFIBISTAN 4 (101 min)

## LARUNBATA 7

20:00

SARI BANAKETA ETA  
OHOREZKO TXAPELA

## IGANDEA 8

19:30

"OSKARA PLAZARA"  
ikuskizuna

**BEGIBISTAN**  
2017 URRIAK 4-8

AMURRIOKO VII ZINEMA ASTEA

## herriz herri

### Urduña

# Udaberrian irekiko dute Aduana eraikineko bainuetxe-hotela



Urduñako bainuetxea udaletxetik ikusita. **Urduñako Udala**



Testua **Izar Mendiguren Cosgaya**

Urduñako bainuetxea berriz irekitzea erabaki du udalak. As-teazkeneko udalbatzan onartu zen hitzarmena gauzatzea. Urduñako Udalak prentsa oharrean zabaldu duenez, 2018ko udaberrian prest egongo da berriro bainuetxe-hotela.

Aurreratu dutenez, alokairu kontratua egingo dute hitzar-

mena sinatu aurretik. Izan ere, eraikin historikoa Urduñederra S.L.-rena da.

#### “Urrats positiboa”

Udalak positiboki baloratu du urratsa: “Kontratua eta hitzarmena hilabete luzez egindako lanaren emaitza dira. Aurreikuspenaren arabera, 2018ko udaberrian irekiko ditu ateak hiriko hotelak”.

Erabilerari dagokionez, turistei bideratutako zerbitzuak es-

kainiko dituzte eremuan, baina urduñarrentzako baliabideak ere bai.

Idoia Aginako alkatearen esanetan, hitzarmena prestatzen ari dira dagoeneko: “Gauzak aurreikusi bezala badoaz, udaberrian zabalduko da Aduana”. Urduñarrei begirako guneak eta zerbitzuak ere atondu nahi ditu enpresak. “Kudeatzailearen asmoa herritarrei ere zerbitzuak eskaintzea da; kirol alorrean, batez ere”, erantsi du.

### Arakaldo

# “Herriko taberna” erabilera anitzeko etxe bihurtuko dute

Testua **Izar Mendiguren Cosgaya**

Datorren urtetik aurrera “Herriko etxea” izango du Arakaldok. Aurki hasiko dituzte obrak, iraileko udalbatzan onartu baitute aurrekontua.

Guztira, 32.000 euroko inbertsioa egingo dute eraikina-ren egokitzapenean. Jabi Asurmendi alkateak azaldu duenez, baina, 24.000€ jasoko dituzte diru-laguntzetan. Hortaz, 8.000 euroko ekarpena gauzatuko du tokiko erakundeak.

Espazio publikoa berritze-ko moldaketa ugari proposatu dituzte eraikinaren barnealdean. Esaterako, orain arteko barra kenduko dute leku gehiago izateko. “Beheko aldea txoko gisa erabiliko da, eta goikoa erabilera anitzeko gela moduan”, argitu du alkateak.

Egungo pisu batetik bestera joateko eskaileretan horma jarri eta biltegia atonduko dute, “bigarren solairura iristeko sarbide gehiago ditu etxeak eta”. Irisgarritasuna bermatzeko, aldiz, arrapala kokatuko dute: “Diru-laguntzak eskatuko ditugu horretarako”.

Arakaldok, beraz, bi txoko izango ditu 2018tik aurrera. Dena dela, herrigunean jarraituko dute antolatzen ekintzak: “Behekoa herritarren eskura jarriko dugu”. Aldaketa nagu-

sietako bat izango da espazioa erabiltzeko interesduna ez dela arakaldoarra izan behar.

Bestalde, udalbatzan aipatu zuten, hileta zibilak edota bestelako ospakizunak antolatze-ko araudia eratzea ere dute buruan.

Gauzak hala, herriguneko txokoaren erabilera berraztertuko du Arakaldoko Udalak, parte hartzea sustatuta: “Herri asanblada egin nahi dugu bestelako ospakizunak gauzatzeko aukera egon dadin. Denon artean hartu behar dugu erabakia”. Izan ere, egungo ordenantzak arakaldoarren eskura jartzen du soilik espazioa, “ezin du herrikoa ez denak alokatu”.

#### Argiteria publikoa

Beste gai batzuk ere landu zituzten Arakaldoko iraileko Udal Osoko Bilkuran. Argiteria izan zen horietako bat.

Aspaldi hasi zituzten herriko argiteria publikoa berritze-ko lanak. Hala adierazi du Jabi Asurmendi alkateak. Alabaina, farolen % 25 falta da ordezkatzeko. “LED-era pasako ditugu guztiak”, aipatu du.

Udalaren egoera ekonomikoa ere izan zuten hizpide. Idazkariak azaldu duenez, 2016ko balantzearen emaitza positiboa izan da: 20.487 eurorekin bukatu du urtea udalak.

### Orozko

# 2019. urtearen hasierarako egongo da prest anbulatorio berria

Testua **Txabi Alvarado Bñaires**

Anbulatorio berria egiteko obrak esleitu berri ditu Orozko Udalak iraileko Udal Osoko Bilkuran. Proyecon Galicia enpresa arduratuko da lanak egiteaz, 579.037,02 euroren truke

(BEZa gabe) eta hamar urteko bermearekin. Tokiko erakundetik adierazi dute hamaika enpresa aurkeztu zirela lehiaketa publikora eta obrak urte amaieran hastea aurreikusi dutela. Espero dute 2018ko azken hilabeteetarako edo 2019ko lehenengoetarako amaitua egotea.

#### Hegoalden kokatua

Galdakaoko OSI arkitektura estudioak osatu zuen osasun-espazio berriaren proiektua, gaur egungo anbulatorioko langileekin eta udaleko aparejadorearekin elkarlanean. Hegoaldeko lursail batean eraikiko dute osasun-azpiegitura.



Gaur egungo anbulatorioaren irudi bat. **Aiaraldea.eus**

# Konpromisoa

gure lurrarekin,  
eta gure hizkuntzarekin



## herriz herri

### Aiara

# Arabako lehen emakumeen etxeak Arespalditzan ireki ditu ateak



Jende ugari bertaratu zen inauguraziora. [AiaraAldea.eus](http://AiaraAldea.eus)

Testua

**Txabi Alvarado Bañares**

Ekitaldi berezia egin zuten iragan asteko ostiralean Arespalditzan. Aiara lehen emakumeen gela inauguratu zuten, mota horretako Arabako lehen egitasmoa. Plazaren atzeko udaleraikin batean dago gela, sindikatuaren egoitza ohian.

Emakume ugari bertaratu ziren gelaren irekiera ekitaldira, eta baita hainbat udal eta foru ordezkari ere. Gentza Alamillo alkateak azpimarratu zuen proiektuak "Aiarak berdintasunaren aldeko borrokarekin

duen konpromisoa" berresten duela, eta gaineratu zuen udaletik ildo hori jorratzen jarraituko dutela.

#### "Aurrerapausoa"

Udaleko berdintasun teknikari Miren Urrezti Azpirrentzat, "aurrerapausoa" izan da gela irekitzea. "Urtebete daramagu pentsatzen emakumeentzako toki bat behar dugula Aiara, matxismoari aurre egiteko".

Bere hitzetan, beharrezkoa da "baliabideak eta tokiak" izatea emakumeak batu daitezen, "elkarrekin hausnartu eta ezberdintasun egoerei aurre egiteko,

Aiara justu eta hobeago bat lortzera bidean".

#### LAIA eskola

LAIA eskolaren barruko tailer bat izango da emakumeen gelan egingo den lehen ekintza. Virginia Imaz klownak eskainiko du ikastaroa. Inaugurazioaren ostean eman zuen lehen saioa, eta ostiral honetan-urriak 6- eskainiko du bigarrena, 17:00etatik 20:00etara.

"Emozio biologikoei eta kulturei" buruz hausnartuko dute tailerrean. Ariketak egingo dituzte, "barruko tentsioa bota eta pozak eta barrea ateratzeko".

## Aiara dago frankismoaren biktimei arreta emateko bulegoa

Testua

**Txabi Alvarado Bañares**

Aiara egongo da frankismoaren biktimei arreta emateko bulegoa, ostiralera arte. Arespalditzan kokatu dute, Eleospide auzoko bigarren zenbakian.

Arabako Foru Aldundiak ja-

rri du abian bulegoa, Euskal Herriko Unibertsitatearekin batera. Diktadura frankistak errepresaliatutako pertsonen testigantza eta informazioa jasotzea da ekimenaren xedea, memoria historikoa berreskuratzea. Frankismoan jazarriak izan ziren herritarrak edota eu-

ren senideak bertaratu ahalko dira bulegora, dituzten datuak eta dokumentazioa aurkezteko.

Txosten bat egingo dute bildutako informazio guztiarekin, "memoriaren berreskuratzean eta biktimekiko errekonozimendu eta erreparazioan" sakontzeko.

### Laudio

## Trenbideen gaineko pasabide guztiak aztertuko ditu Espainiako Sustapen Ministroak

Testua

**Txabi Alvarado Bañares**

Espainiako Sustapen Ministroa den Iñigo de la Sernaekin bildu dira Aretako geltokian iaz hildako gaztearen gurasoak. Madrilera joan ziren horretarako iragan asteko asteartean.

"Ez ginen pozik atera bilertatik, baina uste baino hobeto egon zen". Hala adierazi du zendutako gaztearen aita Gonzalo Faustmannek. "Adi entzun zuten esan genuena eta oharrak hartu zituzten. Bazirudien serioski hartu zutela gaia".

Ministroaz gain, gobernuko beste goi-kargudun batzuk egon ziren batzarrean, Azpiegituren Idazkari Orokorra eta Renferen Operazioen Zuzendar Nagusia tartean.

#### Bi konpromiso

Fautsmannek azaldu du ministroak bi konpromiso hartu zituela. Lehena: Bidaia-asegurua indarrean egotea bidaia-txartela aktibatzen denetik baliogabetzen den arte. "2017ko urtarrilaren 1ean jarri zuten abian neurri hori. Baina, adierazi zigutenez, gure alabaren kasuan ez luke balioko".

Trenbideen gaineko pasabideen ingurukoa da agintariak hartutako bigarren konpromisoa. "Pasabide horiek guztiak aztertuko dituzte", jakinarazi du Fautsmannek, "hala ere, 2-3 urte beharko dituzte ikerketa hori egiteko. Horregatik eskatu diogu ministroari behin-behineko segurtasun neurriak aplikatzea igarobideak aztertzen joan ahala".

Trenak igarotzen direnean entzuten den abisuaz ere eztabaidatu zuten. Renfeko ordezkariak adierazi zuten ohartarazpen hori trena igaro baino minutu erdi edo minutu bat lehenago entzuten dela. "Guk adierazi genien arautegia aldatu egin beharko dela orduan, iritsi berri den tren baten barruan dauden bidaia-erakunde ezin dutelako abisu hori entzun".

#### 300.000 sinadura

Hildako gaztearen gurasoak ez ziren bakarrik joan Madrilera, azken bi hilabeteetan jaso dituzten 318.341 sinadurak eraman zituzten eurekin eta ministerioko erregistroan utzi zituzten. Hori eginda, gobernuak hartutako konpromisoen zain geratu dira.

## Egoitza ireki du Gure Esku Dagok Laudion sinadurak biltzeko



Zumalakarregi dago sinadurak biltzeko egoitza. [AiaraAldea.eus](http://AiaraAldea.eus)

Testua

**Txabi Alvarado Bañares**

Zumalakarregi etorbidean egongo da irekirik asteazkenetan eta ostiraletan arratsalde

18:00etatik 20:00ak bitartean eta larunbatetan 12:00etatik 14:00ak arte. Ekimenaren helburua da 5.000 sinadura jasotzea Aiara, Artziniegan, Okondon, Amurion eta Laudion.

iritzia

Emakumeen gela Aiaran

Irailaren 29an Emakumeen Gela inauguratu zen Arespalditzan. Oso egun inportantea izan zen Aiarako emakume guztiontzat, gela udalerriko emakume guztien bateragunea izango delako, elkarteena eta banakoena. Aiaran aspalditik ari gara lanean berdintasunaren alde, baina azken bi urteetan gure indarrak batu egin ditugu eta Aiara Berdintasunaren Alde (ABA) foroa sortu dugu.

ABAn ongi etorriak dira Aiarako emakume eta gizon guztiak. Hilean behin batzen gara berdintasunaren inguruan hausnartzeko, kontzientziatzeko eta prestatzeko, matxismoari aurre eginez. ABAk egindako lanari esker sortu da emakumeen gela. Protagonismoa emakumeok dugu, gure gela da. Hala ere, gunea zabalik dago berdintasunari lotutako edozein ekintzari. Inaugurazioaren ondoren, Laia Eskolako tailerra gauzatu zen bertan. Virginia Imaz clown ezaguna izan genuen gurean eta hogeita hamar emakume inguru batu ginen umorea eta emakumeak gaia aztertzen eta praktikatzan. Sekulako arrakasta izan zen, bai kopuru aldetik, baita hainbat herrietako jendeak parte hartu zuelako. Ondo pasatzeko eta ozen barre egiteko gogoia dugun emakumeak batu ginen tailerrera, inolako lotsarik gabe. Guztiz osasungarria. Eta onena da emakumeak elkarrekin hasi garela bidea egiten, gelarekin jarraituko dugun bidea. Gure esku dago nora joan nahi dugun pentsatzea. Erroka ederra.



SUSANA MARTIN BENAVIDES

Aiarako berdintasun zinegotzia eta ABAko partaidea



ESTIBALIZ ETXEBARRIA GALNARES

Laudioko emakumeen etxearen proiektuko kidea

Laudioko emakumeentzako etxe feminista eraikitzen

Emakumeentzako etxe feminista? Zertarako? Emakumeentzako proiektu hau aurkeztean sortzen diren makina bat galderek erakusten dute nahaste-borraste dezente daukagula emakumeen eta gizonen arteko berdintasunari dagokionez. Esfera publikoa oraindik gizonezkoen espazioa da; beraz, egun, guretzako eremurik ez izaten jarraitzen dugu emakumeok: indarkeria matxista jasaten dugu, gure ahotsak ez dira entzuten hainbat jarduera publikotan, gure gorputzei buruzko iruzkinak sortzen dizkigute egunero... Gure eskubideak behin eta berriro zapaltzen diren arren, bizipen horiek guztiak ikusezin bihurtzen dira normaltasunpean. Gure gizartea aurrera joango bada berdintasunaren aldeko ekimenak egin behar dira. Alde horretatik, Udaleko Berdintasun Arloak jarduera bizitari eusten dio urte osoan. Aiaraaldean ere baditugu Berdintasun Teknikaria zein LAIA eskola eta emakumeen gela estreinatu dute Aiara.

Horrez gain, aurrerapauso bat gehiago nahi dugu: Virginia Woolfek esan zuenez, aske izateko nork bere eremua izan behar du. Gure espazio propioa nahi dugu biltzeko, elkartrukatzeko, emakume bakoitzak bere ahots propioa eratzeko: “Aske izateko, gure etxe feminista”. Laudion garai kitzikagarria bizitzen ari gara. Badaude Laudio emakumeen elkarre aitzindariak: Solastiar, Avillo eta Jakaranda. Baina baita talde feministak ere: Bagara nor eta beste hainbat emakume batu gara proiektu itxaropentsu hau eraikitzeko. Bada garaia!

“Protagonismoa emakumeok dugu, gure gela da. Hala ere, gela zabalik dago berdintasunari lotutako edozein ekintzari”

“Aske izateko nork bere eremua izan behar du. Gure espazio propioa nahi dugu biltzeko, elkartrukatzeko, emakume bakoitzak bere ahots propioa eratzeko”



GALDERA

Zertarako behar dira emakumeen etxeak?



Miren Urrezti

Berdintasun teknikaria

Emakumeok batzeko, elkarrekin hausnartzeko, prestatzeko eta estretgiak pentsatzeko, ezberdintasun egoerei buelta emateari begira. Oso beharrezkoak dira.



Ana Ugarte

Menagaraiko emakume taldea

Beharrezkoa delako berdintasunaren alde lan egitea. Elkar ezagutzeko espazio bat izatea ahalbidetzen digu, berdintasunaren alde borrokatzeko grina dute pertsonak batuaz.



Arantza Aizpuru

Aiarako bizilaguna

Beharrezkoak direla uste dut. Modan daude, bai; baina beharrezkoak dira. Emakumeak kalera atera behar dira, sozializatu behar dira, euren oskoletik atera behar dira.



Nekane Zeberio

Arabako Foru Aldundia

Emakumeok horrelako espazioak behar ditugu, bildu eta elkarren artean lan egin eta elkarri laguntzeko. Hazi bat landatu da Aiarako emakume gelarekin, Araba osora hedatu daitekeena.



Eider Gartzia Gomez

# erreportajea

25 urte igaro dira Aceros de Llodio enpresa itxi zutenetik. Gertakari garrantzitsua izan zen bailaran: ondorio ekonomiko negatiboak eragin zituen, familia ugari geratu zen lanik gabe eta. Hori dela eta, elkartasun uholdea sortu zen itxieraren aurka. Langileak soilik ez, herriko sektore zabal asko ere inplikatu ziren borrokan.

## “Gauza asko eta, aldi berean, gauza gutxi aldatu direlako”



Oso mobilizazio jendetsuak egin ziren fabrikaren itxieraren aurka protestatzeko. **Laudioko LABen artxiboa**



Testua **Txabi Alvarado Bañares**

Azken 25 urteetan asko aldatu da Gardeako paisaia. Gutxi dira Aceros de Llodio-tik geratzen diren arrastoak, fabrika ibaiertzeko auzoaren zati handi bat okupatzera iritsi zen arren.

Ez zen nolanahiko lantegia: eskualdeko enpresarik garrantzitsuenetarikoa izan zen Aceros. 2.000 langile baino gehiago izatera iritsi zen, itxi zuten unean 560 zeuden arren. “Prozesu nahiko luzea izan zen itxierarena”, azaldu du bertako langilea zen Bego Ortégak, “80ko hamarkadan hasi zen eta 1992. urtera arte iraun zuen”.

“Kapitalismo industrialaren krisian kokatu behar da itxie-

ra, ekoizpen modu horren irabazi-tasak goia jo zuen unean”, erantsi du Aceroseko enpresa batzordean CCOOko ordezkari gisa aritutako Kepa Gonzalezek. “Desinbertsioak eta deslokalizazioak eman ziren, gaur egun ere gertatzen dena”.

### Industria-birmoldaketa

Horren ondorioz, “industria-birmoldaketa” deritzon fenomeno gertatu zen Euskal Herrian. Acerosenaz gain, beste hainbat enpresen itxiera ere eragin zuen horrek, Bilbo-ko Euskalduna kasu. “Enpresariek euren onurakatera zituzten eta estatuaren esku utzi zituzten lantegiak”, oroitu du Juanjo Basterra ekonomia kazetariak. Horrela sortu zen Aceria-

les, altzairugintzan aritzen ziren hainbat enpresa biltzen zituenerakunde publikoa. Acenor izena hartu zuen gero taldeak, eta Sidenor azkenik.

Gauzak hala, langile murrizketa handia egon zen Acerosen 80ko hamarkadan. 1.800 langile izatetik 600 izatera pasa zen fabrika. “Erretiro aurreratua jaso zuten langile askok”, kontatu du Koldo Gaviñak, fabrikako ELAko ordezkari oihak, “60 urtekoei eman zieten erretiroa lehenbizi, eta 58, 55 eta 52 urte zituzten txanda iritsi zen gero”. Orduan hasi ziren lehenengo gatazkak, greba eta manifestazio forma hartu zutenak.

“1988. urtean amaitu zen enpresaren modernizazioa”, Jose Ignacio Alvaradoren esanetan.

## 80. hamarkadan eman zen lehen langile murrizketa: 1.800 behargin izatetik 600 izatera pasa zen fabrika

Aceroseko enpresa batzordeko presidente ohia da Alvarado. Argitu duenez, langileek ez zuten uste enpresa itxiko zela: “1991. urtean jakinarazi ziguten. Sekulako mailukada izan zen”.

### “Erabaki politikoa”

Toño Aizek ere ondo gogoratzten ditu garai horiek, Laudio-ko alkatea izan baitzen 1991. eta 1997. urteen artean. “Beste herrialde batzuetan merkeago produzitzen zen. Gehiegizko ekoizpen bat zegoen hemen, enpresa bideragarri ez izatea ekarri zuena”.

Kontrakoa uste du, baina, Juanjo Basterrak. Kazetariaren ustez, “interes politiko eta ekonomikoak” egon ziren itxieraren atzean. “Espainia Europar

## erreportajea

Batasunean sartu zenean hainbat agindu ekonomiko jaso zituen, horrek ere eragin zuen birmoldaketa". Iritzi berekoa da LAB sindikatuko Irene Isusi: "Gobernuak Europako agindu horiek betetzera mugatu ziren".

Kantabriako Reinosa herriko altzairu-fabrikako gatazkak ere asko baldintzatu zuen Acerosen etorkizuna, Jose Ignacio Al-

## "Industria-birmoldaketa" deritzon prozesuaren baitan eman zen Acerosen itxiera

varadoreen hitzetan. "Langile bat hil zen bertan poliziak jaurtitako ke-poto baten ondorioz. Altzairuaren ekoizpena Laudion zentratuz gero, Reinosa lan-  
tegia itxi egin beharko litzateke seguru asko, eta Madrilgo gobernuak ez zuen hori inoiz onartuko". Gauzak hala, Aceros itxi zenean bertako makinak "piezaz pieza" desmuntatu zituzten, Kantabriara eramateko.

### Grebak, eguneroko ogi

Langile borroka handia eman zen urte horietan, garai hartan eginiko argazki eta bideo askotan ikusi daitekeenez. Grebak, itxialdiak, errepede mozketak eta bestelako ekintzak eguneroko ogi bilakatu ziren Aiaraldean.

"Gobernuak ez zituen gauzak erraz eduki", kontatu du enpresako langile izan zen Kepa Garrrotek, "erabateko gerra izan zen". Jose Ignacio Alvaradorentzat, "gatazka handi bat" sortzea zen helburua, "gobernuak atzera egin zezan, bera baitzen fabrikaren jabea".

Poliziaren erantzuna ere ez zen nolanahikoa izan. "Borroken lehen fasean Guardia Zibila izan zen protestak erreprimitzeaz arduratu zena", Bego Ortégaren arabera. Gatazken azken urteetan, aldiz, Ertzaintzak hartu zuen lekukoa.

"Tentsio handiko momentuak bizi izan ziren", ziurtatu du Kepa Gonzalezek, "langileon erantzuna gogorra zen, baina polizia ere tamainakoa izan zen".

### Herriaren inplikazioa

Hala ere, Acerosen jazo zena ez zen langile borroka hutsa izan. "Mobilizazioak eta eguneroko borrokak gatazkaren sozializazioarekin uztartu zituzten lan-



**Jose Ignacio Alvarado**

Batzordeko presidente ohia

*"Gatazka handi bat sortzea zen helburua, estatuak atzera egin zezan"*



**Bego Ortega**

Aceroseko langile ohia

*"Oso latza izan zen itxieraren aurkako borroka"*

gileek", Irene Isusiren aburuz: "Horrek lagundu egin zuen arazoari zegokion dimentsio politikoa ematen".

Herriko merkatariak izan ziren gehien inplikatu zirenak, Koldo Gaviñaren iritziz: "Grebak zeudenean komertzioak ixten zituzten". Dirurik ez zeukaten langileei ere lagundu egiten zieten saltokiek, Mari Paz Gerriketxebarriaren hitzetan: "Ahal zutenean ordaintzeko esaten genien, eta hala egin zuten egoerak hobera egin zutenean".

Emakumeek ere aktiboki parte hartu zuten gatazkan. "1987. urtean enplegu-funtsean zeuden langileen emazteek protesta-dinamika propioak garatu zituzten, euren senarrak fabrian berronartuak izan zitezen", nabarmendu du Jose Ignacio Alvaradok.

### Gurasoen "piketeak"

Ikasle eta gazteena izan zen mobilizatu zen beste sektoreetako bat. Isabel Díazek Audio Institutuan ikasten zuen bolada horretan. Haren aitak Acerosen egiten zuen lan, eta bi neba zituen Lanbide Heziketa Ikastetxean. "Lantegiko soldatatik bizi ginen. Kobratzen ez zutenean etxera ez zen dirurik iristen, egoera dramatikoa eta oso gogorra zen.



**Koldo Gaviña**

Aceroseko ELAko ordezkaria

*"Grebak zeudenean komertzioak ixten zituzten"*



**Kepa Gonzalez**

Aceroseko CCOOko ordezkaria

*"Kapitalismo industrialaren krisian kokatu behar da itxiera"*



Emakumeek euren protesta dinamika propioak egin zituzten. Amalur Fundazioa



## erreportajea

Familia osoa joaten ginen mobilizazioetara. Poliziak pilotak, ke-potoak eta suzko armak erabiltzen zituen... eta guk harriak”.

Gazteen presentziak isla berezia izan zuen komunikabideetan. “Telebistak zioen gatazkan parte hartzen zutenak ez zirela langileak, ‘agitatzaile profesionalak’ baizik, baina guk bagenekien gurekin zeuden gazteak gure seme-alabak zirela,

### Gazteak, ikasleak, emakumeak... herriko sektore asko inplikatu ziren itxieraren aurkako borrokan

langileen seme-alabak”, argitu du Jose Ignacio Alvaradok.

“Gurea ez zen agitazio hutsa”, azpimarratu du Laudioko institutuko ikasle zen Xabi Gorostiagak, “benetako kezka sakona zegoen herrian, ikasleengurusoak baitziren lanik gabe geratzeko arriskuan zeudenak”. Lanbide Heziketan zeuden gazte askok Acerosen lan egiteko ikasten zuten, gainera. Hortaz, jende askoren bizitza-proiektua zegoen kokolan. Hala ere, bazeuden ikasleek protestetan parte hartzea ere ez zeuden gurusoak, Gorostiagak adierazi duenez: “Piketeak egiten zituzten institutuko atean, atera ez gintezen. Leihotik salto egin behar izaten genuen”.

#### Itxieraren ostekoak

Herri osoaren inplikazioak, baina, ez zuen balio izan itxiera ekiditeko. 1992ko udazke-



Borrokaldira ugarituta ziren langileen eta polizien artean. Laudioko LABen artxiboa eta Amalur fundazioa

nean fabrikak behin betiko eten zuen bere jarduna. 560 langiletik 200ek jaso zuten erretiroa, 25 inguru Gasteizera joan ziren, 10-15 Larrondora eta lau pabost Reinosa (Kantabria). 30-35 beharginek borondatezko baja hartu zuten eta gainontzekoak Basauriko lantegira joan ziren.

“Ez zen kaleratzerik egon”, ja-

kinarazi du Jose Ignacio Alvaradok, baina azpimarratu du borrokaren helburua fabrikak irekita jarraitzea zela, bertako lanpostuak mantendu zitezen. Saltoki eta lantegi txiki ugari itxi zuten hurrengo urteetan, horietako askok Acerosentzat lan egiten zutelako gehienbat. “Ez zen lanpostuen suntsitze hutsa

izan”, gaineratu du Irene Isusik, “herri honen bizimodua zen desegin zena”.

“Depresio izugarriak” egon ziren hurrengo urteetan, Xabi Gorostiagaren arabera, “lana galtzea duintasuna galtzea baitzen jende askorentzat”.

Ez zuen atzera bueltarik egorarik, Toño Aizek ziurtatu duenez:

“Ezin zen lantegia berpiztu. Horregatik, Laudioko udalaren helburu nagusia izan zen gune industrial hori guztia berriz atontzea, jarduera berrietarako prestatzea”.

#### Egungo egoera

Alabaina Laudioko industria-guneko jarduera ekonomikoa ez



**Juanjo Bastera**

Ekonomia kazetaria



**Toño Aiz**

Laudioko alkate ohia



**Isabel Diaz**

Ikasle ohia



**Kepa Garrote**

Aceroseko langile ohia



**Mari Paz Gerriketxebarria**

Merkataria

*“Mota askotako interesak egon ziren itxieraren atzean”*

*“Gune guztia berriz atontzea izan zen udalaren xedea”*

*“Ikasleok aktiboki parte hartu genuen protestetan”*

*“Erabateko gerra izan zen itxieraren aurka eman zena”*

*“Saltokiek diru nahikorik ez zeukaten langileei laguntzen genien”*

## erreportajea



da inoiz Acerosen garaiko mailara itzuli. Hala uste du Juanjo Basterrak. “Gardea auzoa ikustea besterik ez dago. Enplegu gutxi sortu da Aceros zegoen tokian, desertua dirudi. Zerbitzuen herri bat bihurtzen ari da Audio”. Antzeko iritzia du Jose Ignacio Alvaradok, enpleguen kalitatea okertu egin dela pentsatzen du:

“Ezin da alderatu gaur sortzen den enplegua duela 25 urte zeuden lanpostuekin”.

“Langile klasea oso zatituta dago egun”, dio Kepa Gonzalezek. Bat dator harekin Basterra: “Kapitalismoak indibidualizazio jarrera batera eraman gaitu, eta ez dugu horri erantzuten jakin”.

Edozelan ere, atzera eta aurrera begira jarrita, badago Acerosen emandako langile borroka gaur egun errepikatuko ahalko litzatekeela uste duenik. “Orain Espainiako presidentea aterako balitz telebistan esanez Guardian eta Vidrala itxiko dituztela imajinatzen dut erantzuna ez litzatekeela txikia izango”, dio Xabi Gorostiagak. Iritzi berekoa da Bego Ortega ere: “Gaur egun, egoera berdinen aurrean, berdin jokatuko nuke”.

Aceros fabrikaren itxieraren urtemuga dela eta, hainbat ekintza egingo dituzte urrian zehar Laudion.



Irene Isusi

LABeko kidea

**“Herri honen bizitzeko modua zen jokoan zegoena”**



Xabi Gorostiaga

Ikasle ohia

**“Gurasoen piketeak zeudengu protestetara joan ez gintezan”**

**OHARRA:** Acerosen itxierari buruzko dokumental bateko elkarrizketekin osatu da erreportajea. Urriaren 20an estreinatuko da ikus-entzunezkoa, 19:00etan Audioko Kultur Etxeko Arraño gelan.

# Hainbat ekintza egingo dituzte 25. urteurrenean



Plataformako kideak, aurkezpen prentsaurrekoan. Aceros 25 urte plataforma

Testua  
**Txabi Alvarado Bañares**

Udaberrian sortu zen “Aceros 25 urte” plataforma, Aceros de Llodio fabrikako zenbait langile ohiren eta Audioko bizilagun batzuen artean. Fabrika duela mende laurden itxiarren, gaur egun gauza askok berdin jarraitzen dutela salatu dute plataformako kideek.

Hala adierazi zuten irailean eginiko agerraldian. Bertan aurkeztu zuten urrirako presatatu duten egitaraua.

Ekintza ugari barnebiltzen ditu programak. Alde batetik, bi mahai-inguru egongo dira. Batak “Langile klasearen gaur egungo egoera eta erronkak” izango ditu hizpide; eta Acerosen itxiera, aldiz, besteak. Urriaren 11n egingo da lehena, eta 17an bigarrena. Biak ala biak hasiko dira 19:00etan, Audioko Kultur Etxeko Arraño gelan.

Argazki erakusketa prestatu-

ko dute baita, larunbat honetan -urriak 7- egongo da ikusgai Laudikoko Kultur Etxean, Lamuza Parkean egingo den Parke Egunaren baitan.

## Mobilizazioa 21ean

Urriaren 20an, aldiz, “dokumental kolektiboa” estreinatuko dute. Fabrikaren eman zen borroka du ardatz. Mahai-inguruaren toki eta ordu berdinean izango da hau baita ere.

Hilaren 21ean, berriz, mobilizazio bat egingo dute Lamuza Plazan. “Acerosen eman zen langile borroka omendu eta gaur egun borrokatzen jarraitzeko zilegitasun eta beharra aldarrikatuko dira bertan”, adierazi dute. Ekintza horien guztien helburua izango da “Acerosen bizitako borroka” eta “elkartasuna” gogora ekartzea, plataformatik nabarmendu dutenez. “Klase borroka ez da iraganeko kontua”.

**ESKAINNTZA!**

**20€**

Forex 3mm | 50x70zm

**ad!grafik**

Tel. 945 89 08 46  
adi@adigrafik.com  
www.adigrafik.com  
Maskuribai, Z10 · AMURRIO



# agenda

A I A  
R A L  
D E A

2017/10/04  
2017/10/17

*Kulturaz beteko dute*  
Lamuza Parkea,



Parke Egunaren hirugarren edizioa egingo dute Audioko Lamuza Parkean datorren larunbatean -urriak 7-. Edizio berezia izango da, Ortuzainaren Etxearen eta Kasinoaren azpiegiturak baliatu ahaliko diren lehen aldia izango delako. Erakusketak egingo dituzte lehen eraikinean, eta proiektzioak eta kontzertuak besteak beste- bigarrenean.

Goizeko lehen orduetatik iluntzera arte luzatuko da SOS Lamuza Parke plataformak herriko eragile eta norbanako ugariarekin koordinatu duen egitaraua.

**Koreografia lehiaketa**  
Koreografia lehiaketaren hiru-

*Independentzia eguna*  
egin go dute Urduñan

Independentzia Eguna ospatuko du Ernai Aiaraldeak Urduñan urriaren 14an. Ekimen ugari egingo ditu gazte antolakundeak eskualdean azken asteetan, Katalunian eta erreferendumen testuinguruan. Egun osoko egitaraua prestatu dute. Tokiko produktuen azoka eta hitzaldia egingo dira goizean, eta mobilizazioa eta kontzertuak iluntzean, besteak beste.



*Arabako*  
*trikitilari*  
txapelketa  
Udazken Azokan



Urriaren 7an egitarau oparoa jasoko dute Okondoko Udazken Azokan. Eskualdeko trikitilarien topaketari Arabako txapelketa gehituko diote.

11:00etan egingo diete ongietorria musikariei eta jarraian abiatuko dute kalejira. 12:00etan elkartuko dira guztiak azoka eremuan, eta hamaiketakoaren ondoren hasiko dute txapelketa. 13:30ean aurreikusi dute sari banaketa, eta bazkaria eta gero trikiti-jaia egingo da. Horrez gain, untxiak eta oiloak ikusteko aukera egingo da goizean zehar.

Urrian egingo dituzte  
*auzo batzar guztiak*



Urrian egingo ditu Audio-ko Udalak auzo batzar guztiak. 16an izango da Aretakoa, 17an Arrañoakoa, 18an Gardeakoa, 19an landa eremukoa, 23an Ugartekoa, 24an Latiorrokoka, 25an Larrazabalgoa eta 26an herrigunekoa. Haurtzaindegi zerbitzua egingo da.

## JAIAK

**10.07**  
*Larumbata*  
11:00-23:00 LAUDIO  
**PARKE EGUNA**  
Lamuza Parkea

## MUSIKA

**10.14**  
*Larumbata*  
20:00 AMURRIO  
**ANTZERKI MUSIKATUA**  
**Santa Teresa de Jesus**  
Santa Maria eliza

## KIROLA

**10.08**  
*Igandea*  
7:30 OROZKO  
**IBILALDIA**  
**Orozko Harana XXIX.**  
**Iraupen Mendi Ibilaldia**  
Frontoia



**10.08**  
*Igandea*  
8:00 URDUÑA  
**Urduñako Harana eta**  
**Arrastaria: Paisaia aktiboa**  
Foru Plaza

**10.14**  
*Igandea*  
10:00 URDUÑA  
**IBILALDIA**  
**Gorobel, hegaztien paisaia**  
Urduñako Turismo Bulegoa

## TAILERRAK

**10.06**  
*Ostirala*  
17:00 AIARA  
**LAIA ESKOLA**  
**Umorea eta emakumeak**  
Udaletxea

**10.08**  
*Astelehena*  
14:00-16:00 LAUDIO  
**INSTAGRAM**  
**enpresel zuzendua**  
Tokiko Garapen Agentzia

**10.17**  
*Astearte*  
17:30 ARTZINIEGA  
**IPUIN TXIKIAK**  
**“Como mola tu escoba”**  
Liburutegia

## BESTEAK

**10.04**  
*Asteazkena*  
20:00 AMURRIO  
**BEGIBISTAN**  
**Inaugurazioa eta**  
**Ofibistan 1. sekzioa**  
Amurrio Antzokia

**10.05**  
*Osteguna*  
20:00 AMURRIO  
**BEGIBISTAN**  
**Ofibistan 2. sekzioa**  
Amurrio Antzokia

**10.06**  
*Ostirala*  
19:00 AMURRIO  
**Maroñori buruzko liburuaren**  
**aurkezpena**  
Katekesi aretoa

**10.06**  
*Ostirala*  
19:00 AMURRIO  
**BEGIBISTAN**  
**Ofibistan 3. eta 4. sekzioak**  
Amurrio Antzokia

**10.06**  
*Ostirala*  
22:30 LAUDIO  
**BAISALAREN**  
**ERAKUSTALDIA**  
Gazela

**10.07**  
*Larumbata*  
20:00 AMURRIO  
**BEGIBISTAN**  
**Ohorezko txapela eta sari**  
**banaketako gala**  
Amurrio Antzokia



**10.08**  
*Larumbata*  
19:30 AMURRIO  
**OSKARA PLAZARA**  
Amurrio Antzokia

**10.10**  
*Larumbata*



# Kartelera



LAUDIOALDE  
ARETOA

## Detroit

URRIAK 7,  
LARUNBATA  
Sarrera: 3 euro

17:30/20:00



LAUDIOALDE  
ARETOA

## Richard zikoina

URRIAK 8,  
IGANDEA  
Sarrera: 3 euro

17:30




AMURRIO  
ANTZOKIA

## Verano 1993

URRIAK 12,  
OSTEGUNA  
Sarrera: 3,6 euro

19:30



LAUDIOALDE  
ARETOA

## Cantábrico

URRIAK 14,  
LARUNBATA  
Sarrera: 2 euro

17:30/20:00



AMURRIO  
ANTZOKIA

## Barry Seal

URRIAK 9,  
ASTELEHENA  
Sarrera: 3,6 euro

20:00



AMURRIO  
ANTZOKIA

## Tadeo Jones 2

URRIAK 12,  
OSTEGUNA  
Sarrera: 3,6 euro

17:30

Elikadura burujabetza izango dute hizpide bihar -urriak 5- Laudioko Kultura Etxean egingo diren jardunaldietan. Hiru orduko saioa prestatu dute, 16:45etatik 19:45etara arte luzatuko dena. Elikadura “justuagoo, iraunkorragoo eta osasuntsuagoo” nola lortu hausnartuko dute.

## Elikadura burujabetza

hizpide  
Laudioko  
Kultura Etxean

10.08

## Igandea

12:00 URDUÑA  
ASTROLOGIA  
INTUITIBOAREN  
ikastaroaren aurkezpena  
LANBIDE HEZIKETA  
ERAIKINA (Gran Via 10-2)

## HITZALDIAK

10.05

## Osteguna

16:45 LAUDIO  
ELIKADURA ETA  
BURUJABETZA  
Kultura Etxea



10.11

## Asteazkena

16:45 LAUDIO  
GIZAKIEN GIZA  
ESKUBIDEAK  
Kultura Etxea

10.11

## Asteazkena

19:00 LAUDIO  
ACEROS 25 URTE  
MAHAINGURUA  
Kultura Etxea

10.17

## Asteartea

19:00 LAUDIO  
MAHAINGURUA  
“Langile mugimenduaren  
gaur egungo egoera eta  
erronkak”  
Kultura Etxea

## UMEENTZAKO EKINTZAK

10.10

## Asteartea

17:30 ARTZINIEGA  
IPUIN TXIKIAK  
“Balduino eta biolina”  
Liburutegia

10.14

## Larumbata

17:30 LAUDIO  
SORGIN ZAPATUAK  
Tomax pailazoa eta askaria  
Gardeako Gizarte Etxea

Larumbata

10:00 LAUDIO  
BURU OSASUNAREN  
MUNDUKO EGUNA  
Aldai Plaza

10.14

## Larumbata

URDUÑA  
INDEPENDENTZIA EGUNA  
11:00 // Bertoko ekoizleen  
azoka

Grafiti tailerra  
Kalakan egurrezko jolasak  
12:00 // Hitzaldia

Alondegian:  
“Independentzia helburu”  
13:30 // Herriko plaza  
dantza poteoa

15:00 // Foru Plazan herri  
baskaria eta ondoren Hilean  
Bariku Bat

19:00 // Kun kun batukada  
21:00 // Manifestazioa  
Gaztetxetik

Ostean... ekitaldia  
22:00 // Foru Plazan  
kontzertuak: Izatefalsua,  
Gozategi, Dantzetan destroy  
DJ

10.15

## Igandea

9:30 LAUDIO  
NAFARROA OINEZERA  
AUTOBUSA  
Laudio Institutua



10.16

## Astelehena

19:00 ARETA  
AUZO BATZARRA: ARETA  
Kultur Etxea

10.17

## Astelehena

19:00 LAUDIO  
AUZO BATZARRA: ARRAÑO  
Erabilera anitzeko aretoa

10.17

## Astelehena

16:45 LAUDIO  
ZINEMA  
“La vida empieza hoy”  
Kultur Etxea

10.17

## Astelehena

19:00 LAUDIO  
AUZO BATZARRA: GARDEA  
Gardeako Gizarte Etxea

INFO +

aiaraldea.eus

# Kultura

Udazkenahastearekin batera agortuta Aiaraldea Hedabidearen “Udari klik” argazki postal lehiaketan parte hartzeko denbora. 160 lan baino gehiago aurkeztu dira. Aiaraldea Gaur webguneko bozketa baliatuta erabaki da “Publikoaren saria”. Gainontzeko kategorietako -Bidaia, Aiaraldea, umorea, gif-ak

eta marrazkiak- postal irabazleak Txemi Llano argazkilari aiarrak, Txani Rodriguez idazle audioarrak eta Lucia Menoyo komunikabideko kolaboratzaileak osatutako epaimahaiak aukeratu dituzte. Partaideen artean Europara asteburuko txangoa zozketatu da, eta Unai Llanori egokitu zaio.

## Sormen izpiak nagusi, “Udari klik” argazki postal lehiaketan



Testua **Izar Mendiguren Cosgaya**

Irailarekin batera amaitu da Aiaraldea Gaur hedabidearen “Udariklik” postal lehiaketa. Txemi Llano argazkilari aiarrak, Txani Llano idazle audioarrak eta Lucia Menoyo Aiaraldea hedabideko kolaboratzaileak osatu dute epaimahaia. Guztira, 162 lan aurkeztu dira. Marrazkien kategorian ez du inork alerik bidali; eta, beraz, banatu gabe geratu da Artelan papertegiko margo maleta.

Iraide Vallejo arespalditzarra izan da Aiaraldeko irudirik politena, adituen aburuz. Hortaz, bi lagunentzat dastatze menua edukiko du Maroñoko Guzurtegi jatetxean. Lanik umoretsuenagatik, berriz, 4 lagunentzat abentura ekintzaz gozatzeko parada izango du Joseba Vivanco artziniegarrak. Bidaiei kategorian Zuriñe Alava Kostarra gailendu da, eta bi lagunentzat menu berezia dastatuko du Ondarruko Arrigorri ostatuan. Ikus-entzunezkoen alorrean, ordea, Alex Colladoren timelapsea nagusitu da. Ondorioz, bi pertsonarentzat egonaldia eta gosaria ditu zain Arcos de Quejanan.

“Publikoaren saria” izan da aurtengo nobedadeetako bat. Webgunearen bitartez, hiru postalik kuttunenak hautatzeko parada izan dute erabiltzaileek astebetean. Gauzak hala, Ana Perezek etxeratuko du eskualdeko produktuekin osatutako oterra. Irudi guztiak [www.aiaraldea.eus](http://www.aiaraldea.eus) atarian daude ikusgai.

Bosgarren edizioa bukatu arren, egitasmoak egokitu eta dinamika berriak sortzen jarraituko du hedabideak; sorkuntza lanak, parte hartzea eta euskararen erabilera sustatzeko helburuarekin.



“AZERIA OILATEGIA ZAI NTZEN”.

Oportoko merkatuan atera zuen argazkia Joseba Vivancok: “Merkatu zaharra ikustera joan ginen, oso antzinakoa baita. Arrain guztia kanpoan zuten, eta katuak grazia egin zigun. Pasatzen ginen guztiok atera genion egoerari argazkia”.

### UMOREA



**JOSEBA VIVANCO**  
Artziniega

*“Oportoko merkatu zaharretik pasa ginen guztiok atera genion egoerari argazkia”*

### AIARALDEA



**IRAIDE VALLEJO**

Arespalditza (Aiara)

*“Mendira joan eta Etxaurreneko ermitan ezkontza baterako jarri zuten kolunpioak deitu zidan arreta. Egun bateko kontua izan zen”*



“ZINTZILIK EGOTeko ZABUAK”. Etxaurreneko ermitan ezkontza baterako jarri zuten kolunpioa du ardatz Iraide Vallejoren lanak: “Mendira joan nintzen eta arreta deitu zidan. Egun bateko kontua izan zen, biharamunean kendu egin zuten zabua”.

kultura

BIDAIA



**ZURIÑE ALAVA**  
Kostera (Aiara)

*“Jendearen elkartasuna nahi nuen atera argazkian. udarekin oso lotuta daude kontzertuak”*

“HATORTXU ROCK 20...ZENBAT SENTIMENDU, ZENBAT ELKARTASUN” . Udan musika kontzertuak ikusteko asko bidaiatu du Zuriñe Alavak. Besteak beste, Lakuntzan izan zen Hatortxu Rocak jaialdian. “Jendearen elkartasuna nahi nuen ateratzea argazkian. Udarekin oso lotuta daude kontzertuak”, adierazi du.



PUBLIKOAREN SARIA

“#UDARIKLI 18 boto eskuratu ditu Ana Perez amurriarraren argazkiak. Urriaren 2 arte egon zen aiaraldea.eus atarian bozkatzeko aukera. “Argazkia Espejon eginda dago. Udako gozamena islatuta ikus liteke, beti ere naturarekin erlazonatuta”.

*“Udako gozamena islatuta ikus liteke Espejoko argazkian; beti ere, naturarekin erlazonatuta”*



**ANA PEREZ**  
Amurrio

Udako egun berotsuan igerilekuetara joan ordez, Laudion geratzea erabaki zuten Alex Collado eta bere lagunek: “Zuhaitz baten itzalean pipak jatea bururatu zitzaigun. Lurrean eserita nengoela, hainbeste inurri batetik bestera lasterka ikusterakoan, “time lapsea “ egitea otu zitzaidan”, kontatu du.

GIFAK



**ALEX COLLADO**  
Laudio

*“Zuhaitz baten itzalean pipak jatea bururatu zitzaigun. Hainbeste inurri ikusita timelapsea egitea otu zitzaidan”*



## kultura

# Josean Bengoetxeak jasoko du Begibistanen Ohorezko Txapela

Larunbatean -urriak 7- jasoko du aktoreak saria, 20:00etan hasiko den galan. Euskal Herriko 27 film labur ikusi ahalko dira Amurrioko Zinema Astearen VII. edizioan.



Josean Bengoetxea, "Loreak" filmaren irudi batean. [www.marcogadei.com](http://www.marcogadei.com)

Testua

**Txabi Alvarado Bañares**

Gaur -urriak 4- hasiko da Begibistanen VII. edizioa. Josean Bengoetxea aktore donostiarra jasoko du jaialdiaren "Ohorezko Txapela". Igandera arte luzatuko da zinema astea, eta larunbateko galan egingo zaio omenaldia gipuzkoarrari.

"Euskal film labur askotan hartu du parte eta zinema, antzerki eta telebista antzezle nabarmena da", adierazi du Kepa Sojo festibaleko zuzendariak.

Arratsaldeko zortzietan hasiko da gala eta Iñigo Salinero "Txafas" eta Susana Soletto aktoreek gidatuko dute.

**Ikastetxeekin elkarlanean**

27 film labur ikusi ahal izango dira aurtengo edizioan. Lau emanaldi antolatu dituzte horretarako. Gaur izango da lehenena, bihar bigarrena eta ostira-lehen azken biak. Amurrio Antzokian egingo dira proiektzio guztiak. Antolatzaileek azaldu dutenez, elkarlanean arituko dira Amurrioko Hezkuntza

Zentroekin. Bi emanaldi egingo dituzte, Bigarren Hezkuntzako eta Batxilergoko ikasleentzat espresuki prestatutakoak. Bihar 11:00etan izango da bata, eta etzi 12:00etan bestea. Begibistan gazteentzat "erreferentia" bihurtzea da ekimenaren xedea. "Euskal Herriko sortze-prozesuen nahiz ikus-entzunezko kulturarengarantzia azpimarratu nahi dugu horrela", erantsi du Josune Irabien Amurrioko alkateak. Aiaraldea hedabideak jarraipen berezia egingo du webgunean.

## Genero eta sexu aniztasunari buruzko dokumentala grabatuko du Yogurinha Borovak



Eduardo Gaviña, proiekturako eginiko argazki batean. Izar Films

Testua

**Izar Mendiguren Cosgaya**

*My way out* dokumentala finantzatzeko *crowdfunding* kanpaina abiatu dute. Pelikula horretan Eduardo Gaviña audioarrak (Yogurinha Borova) "road movie" batean hartuko du parte. Diru bilketa kanpaina abiatu du horretarako.

Artistaren esanetan, elkarriketak izango dira nagusi filmean; bere feminitatearen inguruan mintzatuko baita familia, lagun, lankide, beste trabesti, emakume transexual, genero gabeko pertsona eta *cross-dresser*ekin. Bidaia horren bidez, sexualitateari eta generoari buruzko hausnarketa luzatu nahi du audioarrak.

Aurreratu duenez, Londresen

oinarrituko da lanaren bigarren zatia, "*cross-dresser* bilera batean parte hartuko dut eta The Way Out Club dantzaleku transgenero mitikoaren 25. urtemuga ospakizunetara gonbidatuko naute".

**Babes kanpaina**

Yogurinha Borovak proiektua gauzatzeko diru ekarpenak jasotzeko kanpaina abiatu du interneten. "Email, whatsapp, facebook edo twitter bidez esteka partekatuta lagun nazakezue; edota gure proiektuari buruz lagun, senide, lankide zein ezagunei hitz egiten", adierazi du.

Artista polifazetikoa da Eduardo Gaviña. Hiru disko plazaratu ditu Yogurinha Borova gisa, eta hainbat telebista-saio eta proiektutan hartu du parte.

## Lamuza Parkeko Kasinoan aurkeztu du Antonio Oyarzabal pianistak bere lehen diskoa

Testua

**Txabi Alvarado Bañares**

Bere lehen diskoa plazaratu du Antonio Oyarzabal pianista audioarrak. *The Inner Child* da lanaren izena, eta Schumann, Debussy, Monpou eta Ravelen konposizioak barnebiltzen ditu.

Orpheus Music diskoetxeak argitaratu du lana eta 29 abestiz osatua dago.

Oso gaztetatik garatu du Oyarzabalek pianoarekiko zaletasuna. La Milagrosa ikastetxeko Sor Cecilia Kellerren gidaritzapean eman zituen lehen pausoak, eta ibilbide luzea egin du ordu-

tik gaur arte. Euskadiko Orkestra Sinfonikoarekin aritu izan da, eta Londreseko Orkestra Filarmonikoko pianojole izendatu zuten iaz, *Foyle Future Firsts* programaren bidez.

Iragan asteburuan aurkeztu zuen diskoa Laudion, Lamuza Parkeko Kasinoan.



Urteak daramatza Oyarzabalek musikaren munduan. [antoniooyarzabal.com](http://antoniooyarzabal.com)

# Jatorrizko tenpluaren nekropolia topatu dute Ermu Andra Marin

Testua  
Aitor Aspuru Saez

Bi aurkikuntza berri egin dituzte Laudioko Ermu Andra Mariko indusketetan. Alde batetik, bigarren elizaren eskailerak topatu dituzte eta, bestetik, nekropoli bat azaleratu dute.

Bertan hilobi monolitikoak aurkitu dituzte, hau da, harrizko estalki bakarrekoak. Urriak dira horrelako elementuak Euskal Herrian, izan ere, harri horiek kalitatezkoak ziren eta berriro erabiltzen zituzten bestelako eraikuntzetan.



Uztailean egindako indusketen irudiak. Aiaraldea.eus

## Indusketekin jarraituko dute

Sergio Escribano historialari eta indusketen arduradunaren esanetan, XI. mendekoak izan daitezke. "Kontserbazio egoera oso ona da", nabarmendu du.

Leku horretara heldu dira bigarren elizaren eskaileretatik (berrez, Ermu Andra Mariko egungo tenplua hirugarrena da). Antza, nekropolia elizaren kanpoaldean zegoen.

Escribanok adierazi du irailean

ekin ziotela indusketen azken faseari eta emaitzek guztiz aldatu dutela ikerketaren norabidea.

Hasieran elizaren barrualdea bukatutzat eman nahi zuten, baina nekropolia agertu ostean, bertan jarraitzea erabaki dute. "Askoz garestiagoa eta nekezagoa da han jarraitzea, gero zoru konpondu behar baita, baina ez bada orain, litekeena da inork ez induskatzea inoiz", argitu du Escribanok.

## Bisitak

Laudioko udal gobernu taldeak jakinarazi dio ikerlariari erabateko babesia izango duela eta lanak finantzatzeko prest dagoela; eta apaizak zein apezpikutzak ere baimena emango dute, zenbait baldintza beteta.

Gauzak horrela, azken aurkikuntzen berri emateko bisitak antolatzeak asmoa daukate azaroan, edonola ere, oraindik ez dute ezer zehaztu.

# Indartsu dator udazkeneko zinema eta antzerki eskaintza

Testua  
Txabi Alvarado Bñares

Urrian zer ikusi egongo da eskualdean. Zinema eskaintza oparoa egongo da Laudialde Ikastetxean eta Amurrio Antzokian,

azken asteetan estreinatutako film ugariarekin.

Hortaz gain, antzerki eta musika eskaintza zabala aurkeztu du Amurrioko aretoak, puntako konpainia batzuen lanekin: igande honetan Kukai dantza

taldea egongo da oholtzan "Oskara plazara" ikuskizuna aurkeztzen.

Urriaren 21ean, aldiz, Antzerki Amateurraren VI. Erakustaldia hasiko da, azaroaren 4ra arte iraungo duena.



## “Dantzaz bizitzea da nire helburua”

**PAULA URQUIJO** (Laudio) MADRILEN IKASTEN DU DANTZARI PROFESIONALA IZATEKO. NIZAKO OPERAKO KONPAINIAN PLAZA LORTU DU PRAKTIKAK EGITEKO.

Testua  
Aitor Aspuru Saez

tean ezinezkoa izango da klaseetara joatea.

**Nizako Operako konpainian arituko zara, zer da zehazki lortu duzuna eta zer proba mota egin behar izan dituzu horretarako?**

Bai, praktika moduko batzuk egiten arituko naiz, ez da plaza finkoa. Uztailean egin nuen proba Nizan bertan, konpainiarekin dantza klase bat hartuz.

Bi urte daramatzat Madrilén. Pasa den ikasturtean batxilergoa eta dantza ikasketa profesionalak bukatu eta gero, aurtengo mailako dantza ikasketetan nabil, María de Ávila kontserbatorioan.

**Zein da zure egunerokotasuna Madrilén?**

Egunak nahiko gogorrak izan ohi dira, ordu piloa ematen dudalako etxetik kanpo. Goizeko 09:00etan hasten dira klaseak, eta normalean 17:30ean bukatu. Nizan egoten naizen bitartean

Noiz hasi zinen dantzatzeko eta zerk bultzatu zaitu jarraitzera?

Hiru urte nituenekansartu ninduen amak, etxean egun osoa ematen nuelako gorputza mugitzen. Askotan galdetzen diot nire buruari ea zergatik jarraitzen dudan dantzatzeko, baina ezingo nuke imajinatu nire bizitza arte honen parte izan gabe.

**Zer da zuretzat dantza?**

Ezinezkoa da hitzez dantza niretzat zer den azaltzea, nire munduan sartzen naiz dantzatzeko danean, eta mugak gainditzeko lan egiteak eta borrokatzeak ondo sentiarazten nau.

**Zeintzuk dira zure helburuak etorkizunerako?**

Helburu nagusia dantza profesionalaz bizitzea da, baina hori lortu ezean, dantzarekin zerikusia duen zerbaitekin lan egin nahiko nuke.

## JAR EZAZU ZURE IRAGARKIA **hemen**

**Komunikazio kanpaina bat martxan jarri nahi duzu?**  
**Zure produktu, zerbitzu edo ekitaldiak iragarri nahi dituzu?**

idatzi [publizitatea@aiaraldea.eus](mailto:publizitatea@aiaraldea.eus) helbidera  
edo deitu **688 625 394** zenbakira

Eskualdean zabalpen  
handiena duen komunikabidea

2 astean behin 10.000 ale banatzen dira Aiaraldea osoan  
(Amurrio, Atziniega, Urduña, Laudio, Okondo, Aiara, Orozko, Arrankudiaga-Zollo eta Arakaldo)



# Kirola

**Hilabeteko proba egiteko aukera eskainiko du Nerbioi Errugby taldeak**



Nerbioi Errugby taldeak doa-ko hilabeteko saioak eskainiko dizkie 8 eta 18 urte bitarteko gazteei. Era horretan, probaldia- ren ostean aukera izango dute partaideek taldean jarraitu edo ez erabakitzeko. Kirolaren praktika ez ezik, filosofia ere eman nahi dute aditzera.

Izena emateko 655 708 812 eta 616 505 076 telefono zenbakietara deitu behar da. Zazpigarren denboraldiari ekingo dio taldeak.

**Aratz Garmendia puntako borrokalariekin entrenatzen ari da Londresen**



Aratz Garmendia borrokalaria aiaraldearrak Londresera jo du bere prestaketa egitera. Izan ere, laster bi borroka izango ditu Asturiasen eta BEC-en. Azken horretan milaka pertsonen aurrean lehiatuko da.

Hori dela kausa, eliteko London Shootfighters gimnasioan trebatzen ari da, eta bertan topo egin du borroka arteen puntako kirolari ospetsuekin.

**“Gustora”**

Garmendiak adierazi du jende oso lasaia eta jatorra direla eta gustura dabilela eurekin entrenatzen. Berez, laster errepikatzea espero du.

Ibilbide oparoa egin du Okondon bizi den kirolariak borroka arteen munduan. MMA diziplinan aritzen da batez ere, eta garaipen ugari erdietsi ditu azken urteetan.

## Eskubaloia, eskualdeko gazte guztien eskura dagoen kirola

Dozenaka aiaraldear bertaratzen dira astero Lamuza-Granja Kiroldegira, Laudio Eskubaloi Taldean parte hartzeko. Hori da eskualdean kirola praktika litekeen talde bakarra. Hasi dira dagoeneko norgehiagokak jokatzeko, eta jokalar berriak lortzeko kanpaina abiatu dute.

Testua  
**Txabi Alvarado Bañares**

Astelehen, asteazken eta ostiraletan La Granja kiroldegira ez da Laudioko jendea soilik joaten. Eskualdeko beste hainbat txokotako gazteak ere bertaratzen dira, Laudio Eskubaloi Taldeko entrenamenduetan parte hartzeko, behintzat.

June Mendoza da horietako bat. Amurriokoa da, eta lagunek bultzatuta hasi zen praktikatzen. “Nire adiskideek kirol horren inguruan hitz egiten zuten, eta animatu egin nintzen”. Klaseko kideen bidez piztu zitzaion interesa Laudioko Uxue Zabala-ri baita. “Klaseko lagun batzuk sartu ziren taldean, eta kirol praktikatzeko ez nuen ni ere batu nintzen”.

Bestelakoa da Xabier Carretero aiararraren kasua: kirol asko frogatu ditu futbola tartean baina baloia eskuan izanda sentitzen da eroso: “Oso kirol dibertigarria iruditzen zait”. Peio Redondo laudioarrak, aldiz, futbolearen aritu nahi zuen, baina Institutura igaro zenean utzi behar izan zion haren ohiko taldean jokatzeari. Orduan ordezkatu zituen jolasarako oinak, eskuekin. “Lagun bat animatu zen eta berekin etorri nintzen”, azaldu du, taldean jarraitzeko asmoa duela gaineratzearekin batera. “Eskubaloian jokatzerakoan asko pentsatu behar duzu, eta konfiantza izan behar duzu talde-lanean”.

Lan-talde zabala osatzen dute Laudio Eskubaloi Taldeko kideek. “Maila bakoitzeko talde bat dago, gutxi gora behera”, erantsi du Ruben Sanchez entrenatzaileak: “Kimuak, haurrak, kadeak, gazteak, seniorrak eta beteranoak daude”. Ikasturtearekin bat ekin diote entrenatzeari, eta hasi dira dagoeneko lehenengo norgehiagokak jokatzeko.

**41 urteko ibilbidea**

Ibilbide luzeko taldea da Laudiokoa, duela 41 urte jaio baitzen. Aiaraldean Eli Pinedo-rengatik da batez ere eskubaloia ezaguna. Hala ere, kirolari



Hasi dira dagoeneko partiduak jokatzeko. **Laudio Eskubaloi Taldea**



June Mendoza  
Amurrio

**“Nire lagunek bultzatuta hasi nintzen eskubaloian”**



Peio Redondo  
Laudio

**“Talde lanean konfiantza izan behar duzu kirol honetan”**

amurriarrak bailaratik kanpo atera behar izan zuen jokatzerara. Amurrioren zegoen kluba desagertu zenean Laudiokoa bilakatu zen Aiaraldeko eskubaloi talde bakarra, eta ordutik hona ez da berririk sortu. Hori dela eta, ibilbide gorabeheratsua izan du elkarteak. “Oso bilakaera polita izan du taldeak”, aipatu du Arrate Etxebarria entrenatzaileak. Alabaina, azken urteetan “jaisiera nabarmena” eman da jende kopuruan, Etxebarriaren ustez: “Kirol honen gaineko ezagutza gutxi dagoelako jendartean, oro har”. Edozelan ere, egun 120 kide inguru dira klubean, guraso eta entrenatzaileak kontuan hartuta.

**“Onena emateko prest”**

Beherakada horri buelta emateko publizitate kanpaina gauzatzeari ekin diote aurten, jokalar berriak lortzeko asmoarekin. Sare sozialetan jarri dute indarra, Facebook eta twitter kontuak sortuta. Aiaraldea.eus atarian ere errolatu dira, jokatzen dituzte partiduen kronikak eta albisteak plazaratzeko. “Gure helburua da jendeari helaraztea hemen gaudela, gogotsu, onena emateko prest”, nabarmendu du Etxebarriak.



Uxue Zabala Unzaga  
Laudio

**“Buruan dituzun gauzez ahazteko balio dit”**



Xabier Carretero  
Arespalditza

**“Oso kirol dibertigarria iruditzen zait eskubaloia”**

## Munduko Txapelketarako prestatzen ari da Olga Artiñano



Europako Sokatira Txapelketan egon zen Olga Artiñano iragan astean, Ingalaterran. Bi finalerditara iritsi zen bere taldearekin, eta laugarren geratu ziren 520 eta 560 kiloko kategorietan.

Hala ere, kirolari laudioarra ez dago pozik lortutako emaitzeekin. “Marka txarrak dira”, adierazi du, “normalean medailaren bat eramaten dugu etxera”. Bere hitzetan, emaitza kaskarrak lortu dituzte Euskal Herriko sokatira taldeek azkenaldian. “Zergatik izan daitekeen aztertzen ari gara, urte osoa daramagu gogor entrenatzen”.

### Hegoafrikari so

Hala ere, datorren astetik aurrera erronka handiago bati egin beharko dio aurre Artiñanok: Munduko Txapelketarako entrenatzen hasiko da bere taldearekin. Hegoafrikan jokatu du da norgehiagoka hori, datorren urtean. “Indartsu heldu beharko diogu, han ez baitituzte medailak oparitu”.

## Urria abenturaz abentura igaro ahal izango dute gazte aiarrak



Iruñako Rokopolisa

Abenturaz betetako hilabetea izango da urria Aiarrak gazteen-tzako, multiabentura programa bat aurkeztu baitu udalak: “Urria-bentura 2017”.

12 eta 18 urte bitarteko gazteei zuzendutako egitasmoa da, eta bost jarduera bernebilduko ditu: eskalada, rapela, tirolina eta slack-linea, urban orienting eta rokopolis.

Irailaren 27an amaitu zen izena emateko epea.

## DUATLOIA

# Arriarango duatloia irabazi du Zuriñe Frutosek



Frutos, Arriarango duatloiko podiumean. Z.F

### Testua Izar Mendiguren Cosgaya

Bikain hasi du denboraldia Zuriñe Frutos artziniegarrak. Dagoeneko hasi da garaipenak pila-tzen. Iragan asteburuan Urduñako Mendi duatloian nagusitu zen, eta oraingoan Arriarango podiuma zapaldu du.

Euskal Herriko Mendi duatloien zirkuituan ari da parte hartzen. Zeanuriko proban ere lehen pos-

tua eskuratu zuen. Sare sozialetan azaldu duenez, pozik dago emaitzarekin: “Bizikletaz egin beharreko zatia gogorra izan zen, sekulako aldapak zeuden”. Frutosen esanetan, zorteko ibili ziren; eguraldi txarra, euria eta lokatza saihestu baitzuten.

Bi norgehiagoketan lehiatu da asteburuan Frutos. Izan ere, igandean Santurtzikoko Serantes igoeran hartu zuen parte, bigarren postua erdietsiz.

## MENDIZALETASUNA

# Positiboko baloratu dute Okondo Ibarra ibilaldi neurtua



Ibilaldian eginiko argazki rallyan eginiko irudi bat. Ganezogorta Mendi Taldea

### Testua Txabi Alvarado Bafiñes

Iragan igandean egin zen “Okondo Ibarra” ibilaldi neurtuaren V. edizioa. Eguraldia lagun izan ez arren, martxaren balorazio positiboa egin dute antolatzaileek. “Parte hartze handia egon zen. 130 mendizale egon ziren guztira, Gipuzkoa, Ara-

ba, Nafarroa edota Burgoetik bertaratutakoak”, adierazi dute Ganezogorta Mendi Taldeko kideek. Nabarmendu dutenez, parte hartzaileak pozik geratu dira jasotako tratuarekin.

“Detaile batzuk zuzendu behar dira”, aitortu dute, “baina bagaude dagoeneko 2018ko edizioan pentsatzen”.


## PILOTA

# Frontoien historiari buruzko argazki erakusketa ikusgai

### Testua Txabi Alvarado Bafiñes

“Denboraren soinuak pot... 2017” argazki erakusketa inauguratuko du Herriaren Pelota-

zale Elkarrekin datorren larunbatean -urriak 7- Laudioko Kultur Etxean. Nafarroako 450 frontoien argazki historikoak biltzen ditu erakusketak. Urriaren 21ra arte egongo da ikusgai.



Argazki zahar ugari biltzen ditu erakusketak. Juan Barriola eta Patxi Aldunate

**eco ETXE NATURE**

**Zelulosa isolamendua**

**ZURE ETXERAKO ISOLAMENDU EKOLOGIKOA**

**50% AURREZTE EGIAZTATUA**

**LOS HUETOS HIRIBIDEA, 17. PAB. GASTEIZ - ARABA**

**680 488 709**

[www.ecoetxenature.com](http://www.ecoetxenature.com)

**LOUMARA GARBIKETAK**

Garbiketa orokorrak, obra amaieraren garbiketak, komunitateen, lokalen eta bulegoen garbiketak egiten ditugu. Tapizerien garbiketaz ere arduratzen gara: sofak, aulkiak, koltxoak, ...

[limpiezas.loumara@gmail.com](mailto:limpiezas.loumara@gmail.com) + 620075132

## kirola

# Iraupen luzeko 4 zeharkaldi, mendizaleen zain

Igandean izango dira Orozkoko eta Urduñako mendi ibilaldiak. Azaroak, berriz, Gorobeiko eta Laudioko mendi martxak ekarriko ditu. Jarduera ugari egiten dituzte eskualdeko elkarteek mendizaleen gozamenarako.



Gorobelen barrena ibiliko dira hainbat mendi-zeharkaldi. Irudian, iazko Gorobel martxa. **Mendiko Lagunak**

### Testua **Izar Mendiguren Cosgaya**

Udazkenarekin batera hasi da mendi ibilaldien denboraldia. Aiarako Kexaako eta Laudioko Latorro jaietako zeharkaldiek abiatu zuten ekitaldien segida. Irailaren bukaeran heldu zioten erronkari Arrankudiaga-Zolloko Matxinkorta eta Okondoko Ganekogorta mendi taldeek ere. Hain zuzen, igandean izan zen Okondo Ibarra V. ibilaldi neurtua.

Orozkok hartuko dio Okondori lekukoa urriaren 8an, iraupen mendi ibilaldia prestatu baitute hogeita bederatzigarrenez. Izenak adierazi gisa, iraupen eta distantzia luzekoa izango da martxa: 7:30ean aterako dira partaideak herriko plazatik. Ohi bezala, Itxinape elkarteak antolatuko du jarduera, eta aurreratu dutenez, ezinbestekoa izango da aurrez izena-ematea. Internet bidez egongo da horretarako aukera, [www.itxinape.com](http://www.itxinape.com) webgunean. Elkar-teko bazkideek 3 euro ordaindu beharko dituzte, eta gainontzekoek 5€. Orotara hiru zirkuitu proposatu dituzte: handia, ertaina eta txikia. Egun berean-urriaren 8an-egingo du Txarlazo Mendi Taldeak

ere “Urduñako XIV. Mendi Martxa”. Zailtasunaren arabera, bi plano aurkeztu dituzte. Batetik, “A” bidea, 26,2 kilometroduna. Antolatzaileek adierazi dutenez, La Paul, Arando, Nerbioiko ur-jauzia eta Artomaña zeharkatuko ditu bideak. “B” ibilbideak, beriz, 14 kilometro izango ditu, eta La Paul, Tortotela eta Delika igaroko ditu, besteak beste. Ordutegiari dagokionez, 8:00etan aterako da lehendabizikoa, eta 10:00etan bigarrena. Nabarmen-tzekoa da elkarteak ibilbidea berri-tzeko urtero egiten duen ahalegi-na. “Dutxatzeko aukera ere eskai-niko dugu”, erantsi dute.

### Gorobel martxa

Amurrioko Mendiko Lagunak taldeak ere aurkeztu du dagoeneko udazkeneko hitzordua: azaroaren 5ean egingo dute XXXI. Gorobel martxa. Urriaren 25ean zabalduko dute apuntatzeko epea [www.mendikolagunak.eus](http://www.mendikolagunak.eus) atarian. Mendizale gehien pilatzen dituen ekimena da Amurriokoa, urtero ehunka lagun elkartzen baititu. Zeharkaldiaren nondik norakoak beranduago plazaratuko dituzte.

Laudioko eta Artziniegako mendi martxak beranduago izango dira; azaroaren amaieran eta

martxoan, hurrenez hurren. Bestalde, azaroaren 12an jasoko du estreinakoz Urduñako Mendi Maratoia.

Zabala da, beraz, Aiaraldean mendizaleetasunaz gozatzeko eskaintza. Horren adibide dira herrietako mendi taldeak, gaur-gaurkoz 7 baitaude: Matxinkorta (Arrankudiaga-Zollo), Ganekogorta (Okondo), Itxinape (Orozko), Goikogane (Laudio), Txarlazo (Urduña), Mendiko Lagunak (Amurrio) eta Ganzorrotz (Artziniega).

Bestalde, gazteei bideratutako hainbat programa edo eskola ere badaude. “Oxigenoa euskarari” dinamika, esaterako, Laudioko nerabeekin gauzatzen ditu mendi irteerak. Amurrioko Mendiko Lagunak ere martxan du mendi eskola. Horrez gain, gazteen-tzako irteera bereziak eskaintzen ditu urtean zehar, ingurune eta lagun berriak ezagutzeko asteburupasak. Aiaraldea Gaur hedabideak “kirol aisia” jorratuko du hemendik aurrera. Hala, Aiaraldean txangoak egiteko proposamen ezberdinak argitaratuko ditu komunikabideak, adin guztiei bideratutako kirol planak, jardueraz gozatzeko jakin beharreko xehetasun guztiekin.

# Urduñako ziklokross proba eta Amurrioko “Ilunabarra erronka”



Zirkuitua egokitzen hasi dira Urduñan. **Urduñako Txirrindulari Elkarte**

### Testua **Izar Mendiguren Cosgaya**

Datorren asteburuan hitzordu bikoitza edukiko dute bizikleta zaleek. Batetik, Urduñako ziklokross proba antolatuko du hiri bizkaitarreko Txirrindulari Elkarteak. Larunbatean izango da zita, Herri Eskolaren aldameneko zelaian. Izen-ematea, baina, hilaren 5ean itxiko dute. Iragan astean hasi ziren zirkuitua egokitzen. Besteak beste, zezen-plaza eta zelai guneak zeharkatuko ditu ibilbideak; eta ohi bezala,

arrapala ugari egongo dira. Ikus-tera doazenentzat txosna jarriko dute Urduñako herri ikastetxean, herria girotzeko asmoz.

Kuskumendi MTBk, bestalde, “Ilunabarra erronka” prestatu du urriaren 8rako. 9:30ean abiatuko dira partaideak Juan Urrutia plazatik, eta 43 kilometroko ibilbidea gauzatu beharko dute, 1.300 metroko desnibelarekin. Aurrez izena ematen duten federatuek 15 euro ordaindu beharko dituzte, eta gainontzekoek 18€. Egunean bertan apuntatzen direnentzat probak 25€ balioko ditu.

# Txakurkrosa gehituko diote Arrankudiagako trailari



Arrankudiaga-Zolloko V.Trailean animaliek ere hartuko dute parte. **Kide**

### Testua **Izar Mendiguren Cosgaya**

Arrankudiaga eta Zolloko Traila berrituta itzuliko da aurren. Matxinkorta mendi taldeak aurreratu du data: urriaren 7an izango da. Gizakientzat ez ezik, txakurrentzat ere egokituko dute proba. Izan ere, txakurkrosa egingo dute.

### Trail modalitatean 3 aukera

Horrez gain, korrikalariarentzat bi zirkuitu egokituko dituzte. Lasterketa luzeak 14 kilometro edukiko ditu, eta laburrak 6. Txakurrekin parte hartzen duten lagunek ere sei kilometroko ibilbidea osatu beharko dute. Apuntatzeko epea zabalik dago sailkapenak webgunean, 5 euroren truke.

# Herriko plaza

Bidali zure zorian mezua **agurrak@aiaraldea.eus** helbidera maiatzaren 20a baino lehen



**Iraia / Haizea**  
Zorionak bikote! Lo celebrarem!  
Muxu bana!

#izenikgabe



**Ekaitz / Haritz**  
Zorionak eta muxu haundi bana  
etxeko guztion partez!

Etxekoak



**Txabo**  
Arakidonilglizerol endokanna-  
binoidearen sintesi neuronaren  
diaziglezirol lipasa alfaren kon-  
partimentazioa!

Lagunak



**Beñat**  
Zorionak Beñat! Mende laurden  
dagoeneko munduan. Ondo  
pasa!

Lagunak



## \_BIDALI ZUREA!

Idatzi zure mezua eta bidali  
argazkia [agurrak@aiaraldea.eus](mailto:agurrak@aiaraldea.eus)  
helbidera edo argitaratu zuze-  
nean Aiaraldea.eus atarian.

# Denborapasak



|                                     |                 |                      |                   |
|-------------------------------------|-----------------|----------------------|-------------------|
| Mahats landare                      | Landare mota    | Nafarroako udalerria |                   |
| Albo, aldamen                       | Joan den urtean | Argizari             | Osasuntsua        |
|                                     |                 |                      |                   |
| IZENA<br>(Mend.) Naiz               |                 |                      |                   |
|                                     |                 | Norskin etatxia      |                   |
|                                     |                 | ijito                |                   |
| Egiantzeko-aren nolako-tasun        | Legs            | Tona, laburruan      | Bozka             |
| Haizetan jarri                      | DEITURA         | Kanpo, landa         | Kontso-nantea     |
|                                     |                 |                      | Azkena eta lehena |
|                                     |                 |                      | Haragia           |
| Itorazi                             |                 | Joan hadi!           |                   |
| Aintzira                            |                 | Interjek-zioa        | Nasa, mota        |
|                                     |                 | Toka, noa            | Potasioa          |
|                                     |                 | Gorai, aidi          | Zer lekutan?      |
| Nerai                               |                 | Ikasteko gaitasuna   |                   |
| Emakume izena                       |                 | Lehena eta azkena    |                   |
|                                     |                 |                      |                   |
|                                     |                 | Gizon izena          |                   |
|                                     |                 | Potasioa             |                   |
| Hark esaten dio beleari 'ipurbolta' |                 |                      | Emakume izena     |

✦ Poeta laudiotarra

## ERRAZA

|   |   |   |   |   |   |   |   |   |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
|   |   |   | 9 | 4 | 5 |   |   |   |
| 3 |   |   | 6 | 8 |   | 7 | 2 | 4 |
|   | 4 | 1 | 7 | 3 |   |   | 8 |   |
|   | 6 |   |   |   |   | 4 |   |   |
|   |   |   | 2 |   | 7 | 5 | 6 |   |
| 9 | 7 | 8 |   | 5 |   |   |   |   |
| 1 | 2 |   |   |   | 8 | 4 | 9 | 3 |
| 8 | 3 | 4 |   |   | 9 | 2 |   |   |
| 5 | 9 | 6 | 3 |   | 4 | 1 | 7 | 8 |

|   |   |   |   |   |   |   |   |   |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
|   |   | 3 |   |   |   |   |   |   |
|   | 1 |   |   | 5 |   |   |   | 3 |
| 6 | 5 | 2 |   | 3 | 7 | 8 |   |   |
|   |   | 7 | 6 |   | 4 |   |   |   |
| 4 |   | 6 |   | 5 |   |   | 7 | 2 |
| 5 |   |   |   |   | 2 | 6 |   |   |
|   | 8 |   | 5 |   |   | 9 |   | 6 |
| 2 |   | 9 |   | 8 | 6 | 4 |   |   |
|   |   |   |   | 2 |   | 7 | 3 |   |

## ZAILA

|   |   |   |   |   |   |   |   |   |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
|   |   |   | 4 |   |   |   | 3 |   |
| 3 |   |   |   | 6 | 4 |   |   |   |
| 4 | 2 |   |   | 7 | 5 | 8 | 6 |   |
| 9 | 7 | 5 | 6 |   |   |   | 4 | 8 |
|   |   |   | 7 |   |   |   |   |   |
| 2 | 6 |   | 4 |   |   |   |   | 9 |
|   | 4 |   | 2 |   | 5 | 6 |   |   |
| 6 |   |   |   |   |   |   | 3 |   |
|   | 3 | 7 |   |   |   |   |   |   |

|   |   |   |   |   |  |   |   |   |
|---|---|---|---|---|--|---|---|---|
|   | 6 | 3 | 7 |   |  |   |   |   |
| 5 |   |   | 3 | 6 |  |   |   |   |
| 7 |   |   | 4 |   |  |   |   | 8 |
|   |   |   |   |   |  | 7 |   | 4 |
| 8 | 4 | 7 |   |   |  | 2 |   | 9 |
| 9 |   |   |   |   |  |   |   |   |
|   |   |   |   | 3 |  |   |   |   |
|   |   |   | 6 | 9 |  | 4 | 5 |   |
| 6 |   | 2 |   | 8 |  |   |   |   |

## DENBORAPASEN SOLUZIOAK

Sudoku, hitz-gurutzatu eta hitz gezidunen soluzioak web-gunean ikusgai: <http://www.aiaraldea.eus/users/denborapasak>



# Eskelak



Argitaratu Aiaraldea Egunkarian eta webgunean  
nahi duzun eskela edo agur mezua.

**Urteurrenak  
Oroigarriak  
Esker-onak  
Eskelak**

Informatu [eskelak@aiaraldea.eus](mailto:eskelak@aiaraldea.eus)-en

FUNERARIA

**L A R R A Z**

E H O R Z T E T X E A

# Zozketa

“OSKARA PLAZARA”  
IKUSKIZUNERAKO BI SARRERA



Kukai dantza taldeak “Oskara plazara” ikuskizuna aurkeztuko du urriaren 8an, Amurrio Antzokian. Parte hartu **[www.aiaraldea.eus](http://www.aiaraldea.eus)** web atarian.

# Aiaraldea txiki

## Hau anabasa



Maripurtzilek udalekura joan nahi du lagunekin, baina ez du bere gela inoiz txukuntzen eta orain ez ditu harako beharko dituen gauzak aurkitzen. Non ote dira...

- 1 Bainujantzia
- 2 Largabista
- 3 Argazki-kamera
- 4 Eskumuturreko ordulari gorria
- 5 Betaurreko laranja
- 6 Lotarako zakua

Hemen duzun saskiaren eta marrazkikoaren artean lau diferentzia daude. Zeintzuk dira?





## Zabaldu Kutxa

Begiratu ongi giltza hauetako bakoitzari. Bakarrak ireki dezake zerraila. Zein da?




## Emaizak



## Urratsez urrats

Lagundu detektibeari arrastoa jarraitzen. Labirinto honetan, giza urratsak dituzten laukietatik joan behar duzu, ezker, eskuin, gora edo behera eginez, baina ez diagonalean.



## Esaera




### Txerri gosetia...

- ... potoloak izaten ditu titiak
- ... inguruan beti euliak
- ... ezkurra amets
- ... amets bitxiak
- ... lotan ematen du eguna
- ... ezertarako denborarik ez
- ... lotan jaten du
- ... platera hutsik
- ... inurriak lagun

## MINAAAA!!!!

Ai, ene! Neskato pinpirin hau Xune da, eta bakarren batek hozka egin dio besoon. Ikusi al duzu zer-nolako hozka?! Aurreko hortz guztien marka utzi dio-eta! Nor demontre izan ote da, Elaia? Oier? Lagundu irakasleari nor izan den asmatzen, bi hitz egin beharko dizkio-eta.



# Kontra

## Mundutik Aiaraldeara



### Tània Miró Porqueres

JAIOTERRIA  
**KATALUNIA (1984)**

BIZILEKUA  
**LAUDIO ETA BARTZELONA**  
**ARTEAN BIZI DA. GERTUTIK**  
**BIZI IZAN DITU AZKEN**  
**EGUNETAKO GERTAKARIAK.**

La Directa

### KATALUNIA



#### DESKRIBAPENA

Pil-pilean dago Katalunia. Iragan igandean 2,2 milioi herritarrek hartu zuten parte autodeterminazio erreferendumean. Espainiako indar polizialak gogor oldartu ziren, baina ez zuten lortu ekimena geldiaraztea. Bozkatzaileen % 89,3ak bozkatu zuen Katalunia errepublika independente bat izatearen alde. Atzo -urriak 3- Greba Orokorra egin zen lurralde guztian. Datozen egun eta orduetan gauza asko aldatu daitezke.

#### AZALERA

32.106,5 kilometro koadro.

#### BIZTANLEAK

7,5 milioi biztanle.

#### HIZKUNTZAK

Katalana, gaztelera eta aranera.

## “Urriaren laren ostean ez dut uste honek atzera bueltarik duenik”

**Diada egunetik daramazu Bartzelonan.**

Bartzelona eta Laudio artean nago orain bizitzen. Horregatik aukera izan dut azken egunetako gertakari guztiak zuzenean bizitzeko, urriaren 20ko mobilizazioak hasi zirenean batez ere.

Egun horretatik aurrera hasi zen salbuespen egoera eta mobilizazioak ugaritu ziren. Ilusioarekin bizi izan nituen une horiek, atzera pausorik eman ezin daitekeenaren ziurtasun eta indarrarekin, irabaziko genuela zioen sentimendu kolektiboarekin.

**Eta urriaren 1a iritsi zen...**

Emozio nahasketa bat eragin zidan egun horrek. Alde batetik, asko hunkitu ninduen herri antolatutako ikusteak bere etorkizuna erabakitzen: elkartasuna, sortutako sareak, ilusioa, parte hartzea, indar polizialen aurrean eginiko erresistentzia eta lortutako garai-

penak... hautetsontziak modu bakesuan defenditzen zituen herri baten adorea. Geroa gure esku dagoela eta dena posible dela ikustea, hori da ilusio gehien egin ziguna. Askapen nazionala lortzeko prozesu parte hartzaile bat, behetik eratua. Jendearen begietako distirak argi uzten zigun irabaztera gindoazela.

Beste aldetik, zapore garratza utzi zigun polizia ikusteak gure jendea neurrigabeko indarkeriarekin erasotzen. Guztiok pairatutako jazarpenek irudi gogor eta bidegabe asko utzi dizkigute. Zapalduak sentitu gara herri gisa, biolentziaren taimana horren zergatia uler- tu ezinik.

**Igandekoa, baina, ez da amaiera izan, gauza asko ari dira gertatzen-elkarrizketa urriaren 2an egin zen-. Nola uste duzu amaituko dela guztia?**

Urriaren 1aren ostean ez dut uste

atzera bueltarik dagoenik, ez dugu herri gisa egin digutena barkatu- ko. Ezin da horrelako errepresioa baliatu eta Kataluniako herriak inoiz baino argiago dauka. Horren- beste eraso pairatzeak balio izan digu gure asmoak berresteko: hitzen ordez borrak eskaintzen dituzten horietatik banatzea. Gaur ez bada bihar izango da, baina inoiz ezingo dute gure herriaren borondatea zapuztu. Denok gaudela igandean eginikoaz harro, herri gisa dugun duintasunaz eta gure autodeterminazioaren aldeko erresistentzia eta borrokaz.

**Zer aurreikuspen dituzue datozen egunetarako?**

Hurrengoak oso egun mugituak izatea espero da. Jendea bere onena ematen ari da eta asanbladetan mobilizazioak antolatzen jarraitzen dihardugu, gure helburua lortu arte. Bihar -urriak 3- Greba Orokorra dago eta geroz eta per-

tsona gehiago ari dira batzen, azken asteetako eskubide urraketek bultzaturik. Igandeko erreferendumak gure herri erantzuna indartzeko eta mobilizazioak sustatzeko balio izan du; eta horrela jarraituko dugu, lortu arte.

**Zer dute komunean Herrialde Katalanek eta Euskal Herriak?**

Logikoa denez, gauza asko ditugu komunean Espainiaren menpe gauden herriok. Estatuaren errepresioa jaso dugu gure askapen nazional eta sozialaren alde borrokatzeagatik.

Oraingo sasi-demokraziak ere jazarri egin ditu gure identitateak, kulturak eta aske izateko grinak. Metodoak aldatu dituzte, eta *basquitis* izatetik *katalanitis* izatera pasa dira. Beti ikusi dugu herri baten pausoei bestearenak baldintzatzen dituela, eta elkarren arteko laguntzak ahalbidetzen duela garaipena.

EGUNKARI HAU LAGUNTZEN DUTE:

